

2006ko urriaren 10ean, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZI ETA ERDIETAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

### EGUNEKO AZTERGAIAK.

- 1.- 2.006KO IRAILAREN 12KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
- 2.- ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.
- 3.-ZENBAIT OBREN AZTERKETA ETA ADJUDIKAZIOA
- 4.-ORDENADOREEN EROSKETARAKO AZTERKETA ETA BERE KASUAN ADJUDIKAZIOA.
- 5.-UDALETXEKO LANGILEEI TRIENIOAK ERREKONNOZITZEA ETA KONTSOLIDATZEA.
- 6.- ZENBAIT MOZIOEN AZTERKETA
- 7.- ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.
- 8.-ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.
- 9.-GALDE ERANTZUNAK.

Aduna, 2006ko urriak 5

ALKATEORDEA.

## **2.006KO URRIAK 10**

### **OHIKO PLENOA.**

Bertaratuak:

ALKATEA

Arantza Aburuza Alkorta.

ZINEGOTZIAK:

Bertaratuak:

Mikel Sarasola Asteasuain.

Antton Artola Ibarguren.

Patxi Ormaetxea Otegi.

Miren Aburuza Alkorta.

Javier Zabala Zabala.

Iñaki Aristeta Gurrutxaga.

IDAZKARIA:

Nerea Ubeda Etxarri

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta seiko urriak 10eko hogeita bat orduak eta hamar minutuak izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

### **LEHENENGO PUNTUA:**

#### **2006KO IRAILAREN 12KO AKTAREN ONARPENA.**

Alkateak 2006ko irailaren 12ko aktaren berri ematen du eta aurrean aipaturiko zinegotziek aho batez onartzen dituzte.

**BIGARREN PUNTUA:**  
**ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.**

Alkateak azken Plenoa egin zenetik ondoren aipatzen diren Dekretuak eman dituela jakinarazten du:

1.- Antton Artola Jaunari, oker batengatik, tasa kitapen bat gaizki egin zitzaionez, tasa berriaren jakinarazpena egiten zaio (175/2006 Alkatetza Ebazpena).

2.- Adunako hiri-eremurako irisgarritasun Plan bat lantzeko erabakia hartzen da eta plana gauzatzeko Eusko Jaurlaritzari diru laguntza eskatzen zaio (176/2006 Alkatetza Ebazpena).

3.- Leandro Galatas Jaunari "Etxeberri" baserriko fatxada txukuntzeko baimena eman eta jakinarazten zaio (177/2006 Alkatetza Ebazpena).

4.- Miguel Arrospide jaunak bere eraikina eraisteko Udal espedientearen etena eskatu zuelarik, eskaera hau ezesten de eta 10 eguneko epean eraikina eraisteko errekerimendua egiten zaio (178/2006 Alkatetza Ebazpena).

5.- Antton Artola Alkateordeari uzten zaizkio Alkatearen eskumenak, hau oporretan dagoen bitartean (179/2006 Alkatetza Ebazpena).

6.- Jose Vicente Arrillaga jaunak, ARAGI. S.L ren izenean aurkezturiko H.I.B 1.4 aren birpartzelazioa hasera batez onesten da. (180/2006 Alkatetza Ebazpena).

7.- Jokin Izagirre Jaunak UEU 3.2 unitatean egindako Hirigintza obren errezeptzioa onartzen da (181/2006 Alkatetza Ebazpena).

8.- Jokin Izagirre Jaunak UEU 3.2 A-n eraikitako etxebizitzaren habilitabilitate baimena ematen da, tasa kitatuaz (182/2006 Alkatetza Ebazpena).

9.-Xabier eta M<sup>a</sup> Rosario Tejeria Jaun/Andereei H.I.B 3.10ean bi familiako etxebizitza bat egiteko exekuzio proiektua onartzen da(183/2006 Alkatetza Ebazpena).

10.- Miguel Arrospide jaunak Udalaren kontra daukan auzia dela eta, Auzitegiak Udaleko espedientea etenda uzteko autoaren betetzea erabakitzen da (184/2006 Alkatetza Ebazpena).

11.- Iñaki Ayerbe Jaunari, EYDIMEN 2000 S.L enpresa irekitzeko baimena ematen zaio (185/2006 Alkatetza Ebazpena).

12.- Jose Vicente Elizegi Arrillaga Jaunari, Aragi Bulegoak S.L ren izenean aurkezturiko HIB 4 Unitatean bi etxebizitza egiteko eskaera ezeztatzen da, proiektuan zuzenketak eginbeharko direlako(186/2006 Alkatetza Ebazpena).

13.- Jose Vicente Elizegi Arrillaga Jaunak ARAGI BULEGOAK S.L-ren izenean aurkezturiko bi familiako bost etxebizitza egiteko exekuzio proiektua onartzen da.(187/2006 Alkatetza Ebazpena).

14.- Juan Iraola Jaunak Ulanberro baserri atzean lurra berdintzeko eskatutako baimena ezezten da, proiektu faltagatik (188/2006 Alkatetza Ebazpena).

15.- Jose Miguel Agirre Jaunak, Lardi baserrian bi lehiu atera eta beste bat aldatzeko eskatutako obra baimena onartzen da, (189/2006 Alkatetza Ebazpena).

16.- Xabier eta M<sup>a</sup> Rosario Tejeria Intxausti jaun Andereari aurrekoan kitatutako gas horniduraren tasaren zuzenketa egiten da errore batengatik 1.000€ kitatzu zitzaiolako 900€ beharrean ( 192/2006 Alkatetza Ebazpena).

17.- Juan Goiko Albisu Jaunak eskatutako Nekazaritza, lorezaintza eta berdeguneetara bideratutako jarduera gaineko txosten faboragarria ematen da Ingurugiro sailera bidaliz, honek beharreko neurri zuzentzaileak jar ditzan ( 193/2006 Alkatetza Ebazpena).

18.- Jose Mari Sarasola eskatutako ur lotura onartzen da betiere, kontadorea ezartzeko eta ura helbideratzeko betebeharrak ezarriz ( 194/ 2006 Alkatetza Ebazpena).

19.- “Casa Ayestaran S.L –k” edarien biltegirako pabiloi industrialala irekitzeko baimena ematen da ( 193/2006 Alkatetza Ebazpena).

20.- Juana Josefa Aburuza Andereak eskaturiko “Etxe Nagusi” baserri ondoko lurra berdintzeko baimena ez da onartzen , dagokion proiektua aurkeztu ez duelako ( 194/2006 Alkatetza Ebazpena).

21.- Xabier Begiristain jaunak aurkezturiko dekorazio estudio baterako jarduera espedientea hasteko erabakia hartzen da (195/2006 Alkatetza Ebazpena).

22.- Urtako industriguneko BELCA S.A ri bere jarduera legeztatzeke errekerimendua jakinarazten zaio ( 196/2006 Alkatetza Ebazpena).

23.- Suministros Añorga S.L-ri bere jarduera legeztatzeke errekerimendua jakinarazten zaio (197/2006 Alkatetza Ebazpena).

24.- Maite Oiartzun Andereak , Elordi – Txikiko bizilagunen izenean aurkezturiko etxeke sarrera aldatzeko obra baimena eskaera onartzen da (198/2006 Alkatetza Ebazpena).

25.- Jose Vicente Elizegi Jaunak ARAGI S.L, ren izenean aurkeztutako HIB 1.4 unitatean 6 etxebizitza eraikitzeke proiektua ez da onartzen , proiektuan egin beharreko aldaketak jakinarazten diren heinean.

**HIRUGARREN PUNTUA:  
ZENBAIT LAN ETA IREKITZE BAIMEN ESKAERA ETA KONTSULTA  
URBANISTIKOAK ETA SEGREGAZIOAK.**

Ez dago eskaerarik.

**LAUGARREN PUNTUA:  
ZENBAIT OBREN AZTERKETA ETA ADJUDIKAZIOA.**

**A.-BULANDEGI INDUSTRIGUNERA URA ERAMATEKO OBREN  
ESLEIPENA.**

Ikusirik Bixente Otegi Lizaso Jaunak aipatu obrak egiteko aurkeztutako aurrekontuaren ordain-saria 13.221€ (BEZ aparte) takoa dela eta espedientera atsekitutako Udal Idazkariaren txostena .

Proposatutakoarekin bat etorriaz eta 2/2000 Errege Dekretu Legegileak, Administrazio Publikoen Kontratazioa arautzen duenak xedatutako fakultateak erabiliaz

ERABAKITZEN DA:

1.- Bulandegiko Industrigunera ura eramateko obren esleipena Bixente Otegi Lizaso Jaunari egitea ordain-saria 13.221€ (BEZ aparte) delarik.

2.- Obren finantzatzea 2006 urteko aurrekontuko 1.0000.601.441.00.02 partidaren bidez egingo da.

3.- Esleipendunari ebazpen hau jakinaraztea eta kontratua formalizatzeko errekerimendua egitea.

**B.- ELBARRENA INDUSTRIGUNEKO MANTENIMENDU LANEN ESLEIPENA**

Ikusirik Bixente Otegi Lizaso Jaunak aipatu obrak egiteko aurkeztutako aurrekontuaren ordain-saria 8.293€ (BEZ aparte) takoa dela eta espedientera atsekitutako Udal Idazkariaren txostena .

Proposatutakoarekin bat etorriaz eta 2/2000 Errege Dekretu Legegileak, Administrazio Publikoern Kontratazioa arautzen duenak xedatutako fakultateak erabiliaz

ERABAKITZEN DA:

1.- Elbarrena Industriguneko lanen esleipena Bixente Otegi Lizaso Jaunari egitea ordain-saria 8.293€ (BEZ aparte) delarik.

2.- Obren finantziaketa 2006 urteko aurrekontuko 1.0000.601.511.00.02 partidaren bidez egingo da.

3.- Esleipendunari ebazpen hau jakinaraztea eta kontratua formalizatzeko errekerimendua egitea.

### **D.- ESPALOIEN KONPONKETA OBREN ESLEIPENA**

Ikusirik Bixente Otegi Lizaso Jaunak aipatu obrak egiteko aurkeztutako aurrekontuaren ordain-saria 5.320€ (BEZ aparte) takoa dela eta espedientera atsekitutako Udal Idazkariaren txostena .

Proposatutakoarekin bat etorriaz eta 2/2000 Errege Dekretu Legegileak, Administrazio Publikoaren Kontratazioa arautzen duenak xedatutako fakultateak erabiliaz

ERABAKITZEN DA:

- 1.- Espaloien konponketa obren esleipena Bixente Otegi Lizaso Jaunari egitea ordain-saria 5.320€ (BEZ aparte) delarik.
- 2.- Obren finantzatzea 2006 urteko aurrekontuko 1.0000.609.121.00.01 partidaren bidez egingo da.
- 3.- Esleipendunari ebazpen hau jakinaraztea eta kontratua formalizatzeko errekerimendua egitea.

### **E.- HAIZPEA BASERRI INGURUKO ZENBAIT MANTENIMENFU OBREN ESLEIPENA.**

Ikusirik Bixente Otegi Lizaso Jaunak aipatu obrak egiteko aurkeztutako aurrekontuaren ordain-saria 11.604€ (BEZ aparte) takoa dela eta espedientera atsekitutako Udal Idazkariaren txostena .

Proposatutakoarekin bat etorriaz eta 2/2000 Errege Dekretu Legegileak, Administrazio Publikoaren Kontratazioa arautzen duenak xedatutako fakultateak erabiliaz

ERABAKITZEN DA:

- 1.- Haizpea inguruko mantenamendu obren esleipena Bixente Otegi Lizaso Jaunari egitea ordain-saria 11.604€ (BEZ aparte) delarik.
- 2.- Obren finantzatzea 2006 urteko aurrekontuko 1.0000.609.121.00.01 partidaren bidez egingo da.
- 3.- Esleipendunari ebazpen hau jakinaraztea eta kontratua formalizatzeko errekerimendua egitea

## **F.- ZENBAIT BIDEEN KONPONKETA OBREN ESLEIPENA**

Ikusirik Bixente Otegi Lizaso Jaunak aipatu obrak egiteko aurkeztutako aurrekontuaren ordain-saria 16.980€ (BEZ aparte) takoa dela eta espedientera atsekitutako Udal Idazkariaren txostena .

Proposatutakoarekin bat etorriaz eta 2/2000 Errege Dekretu Legegileak, Administrazio Publikoen Kontratazioa arautzen duenak xedatutako fakultateak erabiliaz

ERABAKITZEN DA:

1.- Zenbait bideen konponketa obren esleipena Bixente Otegi Lizaso Jaunari egitea ordain-saria 16.980€ (BEZ aparte) delarik.

2.- Obren finantzatzea 2006 urteko aurrekontuko 1.0000.601.511.00.03 partidaren bidez egingo da.

3.- Esleipendunari ebazpen hau jakinaraztea eta kontratua formalizatzeko errekerimendua egitea

**BOSTGARREN PUNTUA:**

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GARAPEN IRAUNKORREKO DEPARTAMENTUAK AURKEZTURIKO “TOLOSALDEKO UR HORNIDURA 5.FASEA ADUNAKO ADARRAREN 1.PROIEKTU ALDATUKO” OBREN 6.ZIURTAGIRIA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamenduarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena sinatu ondoren, Udal Batzar honek, aho-batez, aipatutako Departamenduak igorritako Tolosaldeko ur hornidura 5.fasea: Adunako adarra proiektuaren 6.ziurtagiria onartu du, ziurtagiri honen zenbatekoa 8.504€takoa delarik.

**SEIGARREN PUNTUA:**  
**ORDENADOREEN EROSKETAREN AZTERKETA ETA BERE KASUAN**  
**ESLEIPENA.**

Udaletxeko bulegoetarako ordenagailu berriak erosteko kontratazio espedientearen hasiera onartzen da. Zenbait enpresetan bi ordenadore erosteko aurrekontua eskatzea onartzen da, hurrengo bileran kontratua esleitzeko utziaz.

**ZAZPIGARREN PUNTUA:**  
**UDALETXEKO LANGILEEI TRIENIOAK ERREKONOPZITZEA ETA**  
**KONTSOLIDATZEA**

Idazkariak Udaletxeko langilea den Pepita Arratibel Zurutuzak 2.006ko irailaren 1ean 11.trienioa bete duela eta EUFALEBA hitzarmenaren arabera onarturiko trienioa aplikatuko zaiola jakinarazten du. Gai hau bototara jarriaz, aho batez, zinegotziak trienioaren berri izan eta onartzen dute.

**ZORTZIGARREN PUNTUA.**  
**ZENBAIT MOZIOEN AZTERKETA.**

2.006ko abuztuaren 7an Iñaki de Juanak Estatu Espainoleko kartzela politikaren aurka hasitako gose greba dela eta aurkezturiko mozioa aztertu ondoren, Adunako Udalbatzak, aho batez, honako puntu hauek onartu ditu:

1.- Udal honek, euskal preso politikoaren eta bereziki Iñaki de Juanaren aurkako zigor politika bertan behera utzi eta berehalako askatasuna exijitzen dio Espainiako Gobernuari. Era berean, Udal honek, bere elkartasuna adierazi nahi dio Iñaki de Juanari.

2.- Udal honek, indarrean dagoen legea egikaritzuz, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten eta zigorraren 2/3 beteta duten presoaren askatasuna eskatzen du.

3.- Udal honek, euskal preso politikoaren eskubide guztiak errespetatuak izatea exijitzen die frantziar eta espainiar Gobernuari, eta presoak egoera politikoaren baitan truke-txanpon gisa erabiliak izatea ez dugula onartuko adierazten du. Era berean, presoak, Euskal Herriak Estatu espainiar eta frantziarraren aurka duen gatazkaren ondorio diren heinean, konponbide prozesuan ere parte hartzeko duten eskubidea aldarrikatzen du Udal honek.

4.- Erabaki honen berri Rodriguez Zapatero Espainiako Presidenteari eta herritar guztiei emateko konpromisoa hartzen du Udal honek.

#### **BEDERATZIGARREN PUNTUA: ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.**

1.- Adunako Aerobikeko Taldeak materiala erosteko dirulaguntza eskatu zuelarik 2006ko irailaren 21-ean, Udalbatzak aho-batez, beharrezko materiala erosi eta ordainagiria erakusten dutenean dagokiona ordaintzea onartzen du.

2.- Rosario Otegi 2006eko irailaren 19an, Ioritz Otegi Iturbe umearen bizi-baldintzak hobetzeko egindako diru eskaera ikusi ondoren, Udalbatzak, aho batez, mila hirurehun eta hirurogeita bost euro (1375€) ematea onartzen du.

3.-Ipar Euskal Herriko Euskal Irratiak 2006ko urriaren bederatzian aurkeztu zuten Udaletxeko Idazkaritzan, 2005-2010 urtetarako Garapenerako plan estrategikoa. Euskal Irrati hauen proiektua aurrera eramateko dirulaguntza eskaera egin zutelarik, Udalbatzak, aho-batez, 150€ laguntza ematea onartzen du.

#### **HAMARGARREN PUNTUA: ALKATEAREN INFORMAZIOA**

Alkateak azken Plenoa egin zenetik gertatu diren gai interesgarrien eta hartutako erabakien berri ematen du eta Udalbatza jakinaren gainean geratzen da.

Beste Aztergaiarik gabe, hogeita hiru orduak direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.